

## [Eusk/Cast]Ante los incidentes provocados por la policía en Iruñea

---

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN. :: 12/03/2017

Los únicos culpables de los incidentes son la policía que constantemente vulnera el derecho de expresión por medio de la represión

**[Euskara]**

### **Poliziak Iruñean sortutako istiluen aurrean**

Atzo Polizia Espainolak Iruñean eragindako istiluen aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak honakoa adierazi nahi du:

Lehenik eta behin gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu atxilotutako lau pertsonen eta haien berehalako askatasuna exijitzen dugu, inolako kargurik gabe. Ez dakigu pertsona hauek poliziaren aurreko autodefentsan parte hartu duten ala ez, baina ez zaigu axola haien errugabetasuna aldarrikatzeko orduan. Istiluen errudun bakarrak etengabe adierazpen askatasuna errepresioaren bitartez urratzen duen polizia eta honi biolentzia mota hau aurrera eramateko agindua ematen dieten politikari ustelena baita.

Betiko sasi-kazetariak, beste behin ere, atzoko manifestazioa kriminalizatzeko asmoz “dena da ATA” argudioa erabili duten arren, errealitatea da hainbat eta anitzak garela otsailetik aurrera “Errepresioari Autodefentsa” dinamikaren baitan parte hartzen egon garen eragileak, herri mugimenduaren aberastasunaren eta errepresioari aurre egiteko indarrak biltzeko dagoen beharraren sentimenduaren adierazle argia.

Dinamika honen helburua azken garaietako hainbat errepresio kasuri ikusgarritasuna ematea izan da, horretarako eragile ezberdinok 17 hitzaldi, kontzentrazio bat eta atzoko manifestazioa burutu ditugularik. Errepresioa salatu dugu, eta errepresio gehiago jaso dugu.

Atzoko manifestazioak, ordea, berezitasun bat izan du, izan ere hainbestetan ezkutatuta gelditzen den errepresioa mundu guztiaren bistan gelditu baita, eta hori manifestarien jarrera irmoak eta ausartak eragin du. Hainbestetan modu indibiduallean pairatu dugun biolentzia estrukturalari modu bateratuan eta burua tente egin diogu aurre. Gure mugimenduak manifestariak txalotu nahi ditu erakutsitako duintasunagatik.

Espainiako Gobernu faxistak Nafarroan duen Ordezkaritzak manifestazioa ez zegoela komunikatuta argudiatu du eraso egiteko, hau da, errepresioa egunero aplikatzen digutenei errepresio hori bera salatze baimena eskatu ez diegula. Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak manifestazio eskubidea inori baimenik eskatu gabe aurrera eramateko herriak duen zilegitasuna aldarrikatu nahi du. Herria politikoki heldua da inori bere eskubideak eskean ibiltzeko, eta are gutxiago Euskal Herritik kanpo nahi ditugun okupazio indarrei. Alde hemendik!

Ezin bukatu haien burua “alderdi politiko” izendatzen duten enpresa handi horiek egindako balorazio negargarriari aipamenik egin gabe. Logikaren barnean sartzen dira haien burua sistemaren kudeatzailatzat hartzen dutenen jarrera (PP, PSOE, PNV), izan ere, Herri Mugimendua osatzen dugunok gure bizitzak izorratzen dituen sistema horren aurka aritzen baikara. Haientzat gure mespretxua eta orain arte aritutako bide beretik jarraituko dugularen ohartarazpena.

Zalantza gehiago piztu ditzakete euren burua sistema honekiko “alternatiba” edo “aldaketaren indarrak” izendapenaz definitzen duten horien jarrerak, EH Bildurenak, alegia. Iruñeko alkate Joseba Asiron kezkatuta agertu da kaleak zikin geratu omen direlako, eta elkartasuna adierazi die ostalari eta bizilagunei, ez ordea kolpatutako manifestariei ezta atxilotuei ere. EH Bilduk esan du “halako gertaerek gizartearen gehiengoak aukeratutako bidea oztopatzea” dutela helburu, “alegia, bakea, elkarbizitza eta normalizazio politikoa.” Horri gehitu egin dio “helburu politikoetarako indarkeriaren erabilpena guztiz gaitzesten” duela.

Errepresaliatuen eta errepresiogileen arteko distantziakidetasunean jartzeak bigarrenen jarduerari erraztasunak ematea dauka ondorio moduan, eta indarkeriaren gaineko irakurketa aseptikoak egiteak indarkeria legalaren sendotzea ekartzen du. Bakeaz, elkarbizitzaz eta normalizazio politikoaz, zer ulertzen du EH Bilduk? Injustizien aurrean zintzo egotea eta sistemak markatutako parametroetatik ez irtetea? Helburu politikoetarako indarkeriaren erabilpena guztiz gaitzesten duela dionean zer ari da gaitzesten? Kartzelan, ihesean eta deportazioan dauden militantzia politikoa, ala gelditzen zaizkigun eskubide apurrak lortzeko barrikaden atzean egon zirenen langile borrokak? Sobieten biolentzia gaitzesten ari dira ala Kubako iraultzarena?

Ikusitakoa ikusita, orain egun gutxi Podemosi buruz esan genuena esan genezake EH Bilduri buruz ere: borrokarako grina leundu eta ardi beltzak instituzio faxisten artaldera bideratze aldera jaio zela, modu horretan sistema kapitalistaren biolentzia estrukturalaren zutabeen euskarririk garrantzitsuena bihurtuz eta langileen azpiratzea betikotzeko elementu oinarritzko bilakatur.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak atxiloketak salatze gaur bertan 12:00etan Nabarrerian egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia egiten du. Errepresioari autodefentsa!

Euskal Herria, 2017ko martxoaren 12a.

## **Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.**

\_\_\_\_\_ -

### **[Castellano]**

Ante los incidentes provocados por la Policía Española ayer en Iruñea, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere expresar lo siguiente:

En primer lugar queremos expresar nuestra total solidaridad a las cuatro personas detenidas y exigimos su inmediata liberación, sin ningún tipo de cargo. No sabemos si estas personas han participado o no en la autodefensa ante la policía, pero esto no nos importa a

la hora de reivindicar su inocencia. Los únicos culpables de los incidentes son la policía que constantemente vulnera el derecho de expresión por medio de la represión y los políticos corruptos que le ordenan a la policía ejercer este tipo de violencia.

A pesar de que los pseudo periodistas de siempre han utilizado, una vez más y con la intención de criminalizar la manifestación, el argumento de que “todo es ATA”, la realidad de que somos varios y plurales los agentes que desde febrero hemos estado tomando parte en la dinámica “Errepresioari autodefentsa”, claro exponente de la riqueza del movimiento popular y del sentimiento existente sobre la necesidad de unirse frente a la represión.

El objetivo de esta dinámica ha sido dar visibilidad a varios casos represivos de los últimos tiempos, para lo que los distintos agentes sociales hemos llevado a cabo 17 charlas, una concentración y la manifestación de ayer. Hemos denunciado la represión, y hemos recibido más represión.

La manifestación de ayer, sin embargo, tiene una particularidad, ya que esa represión que tantas veces queda oculta, esta vez ha quedado a la vista de todo el mundo, y eso ha sido posible gracias a la actitud firme y valiente de los y las manifestantes. Hemos respondido de manera unitaria y con la cabeza alta a esa represión que tanta veces hemos recibido de manera individual. Nuestro movimiento quiere felicitar por la dignidad mostrada a quienes se han manifestado.

La Delegación que el Gobierno fascista de España tiene en Nafarroa, ha alegado para atacarla que la manifestación no había sido comunicada, es decir, que ha alegado que no le hemos pedido permiso a quienes nos reprimen para denunciar que nos reprimen. El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere reivindicar el legitimidad que tiene el pueblo para llevar adelante su derecho a la libertad de expresión sin pedirle permiso a nadie. El pueblo es políticamente adulto como para andar mendigando sus derechos, y mucho menos a esas fuerzas de ocupación a las que no queremos. ¡Fuera de aquí!

No podemos terminar sin hacer mención a la penosa valoración que han hecho esas grandes empresas que se autodenominan “partidos políticos”. Está dentro de la lógica la actitud de quienes se dicen gestores del sistema (PP, PSOE, PNV), pues quienes actuamos en el movimiento popular actuamos contra este sistema. Para ellos nuestro desprecio y la advertencia de que seguiremos por el mismo camino que hasta ahora.

Puede crear más dudas la actitud de aquellos que se definen como “alternativa” a este sistema o como “fuerzas del cambio”, como EH Bildu. El alcalde de Iruñea se ha mostrado preocupado porque al parecer las calles no han quedado limpias, y se ha solidarizado con hosteleros y vecinos, no así con los manifestantes ni con los detenidos. EH Bildu ha dicho que estos actos buscan “buscan entorpecer el camino elegido por la mayoría de la sociedad para avanzar hacia un escenario de paz, de convivencia y de normalización política”. Ha añadido que rechazan “la utilización de la violencia con fines políticos”.

Ponerse en la equidistancia entre represaliados y represores tiene como consecuencia el dar facilidades a la actividad de los segundos. Hacer lecturas asépticas sobre la violencia trae el fortalecimiento de la violencia legal. ¿Qué entiende EH Bildu por paz, convivencia y

normalización política? ¿Ser formales ante las injusticias y no salirse de los parámetros marcados? ¿Cuándo dice que rechaza la utilización de la violencia con fines políticos qué es lo que está rechazando? ¿La militancia política de quienes están en la cárcel, el exilio y en la deportación, o las luchas obreras llevadas a cabo por los trabajadores y trabajadoras en las barricadas para conseguir los pocos derechos que aún nos quedan? ¿Están rechazando la violencia de los sobiet o la de la revolución cubana?

Viendo lo visto, podríamos decir sobre EH Bildu lo mismo que hace pocos días dijimos sobre Podemos: que nació para amortiguar las ansias de lucha y para encaminar a las ovejas negras al redil de las instituciones fascistas, convirtiéndose así en el mayor soporte para los pilares de la violencia estructural del sistema capitalista y transformándose en elemento básico para la perpetuación del sometimiento de la clase trabajadora.

El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión llama a participar en la concentración que se llevará a cabo a las 12:00 de hoy mismo, en la calle Navarrería, para denunciar las detenciones.

En Euskal Herria, a 12 de marzo de 2017.

**Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.**

---

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ante-los-incidentes>